HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN HILEKO KUOTAK KUDEATZEKO ARAUDIA (2019ko irailaren 1etik aurrera indarrean)

08/03-2019 ERABAKIA, 2019ko martxoaren 26koa; horren bidez Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak Haurreskolak Partzuergoak eskainitako zerbitzuen prezio publikoen kobrantza kudeatzeko araudia onartzen du.

1. ARTIKULUA: XEDEA

Araudi honen xedea da 08/10-2018 Erabakia, 2018ko urriaren 18koa, aplikatzeko irizpideak ezartzea. Erabaki horren bidez, Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak Haurreskolak Partzuergoak eskainitako zerbitzuen prezio publikoak onartu eta finkatzen ditu.

2. ARTIKULUA: IRIZPIDE OROKORRAK

1. Familiek haurreskolak irekita egongo diren 208 egunetan eskainiko zaien arretagatik ordaindu beharko duten kostua hileko 11 kuotatan zatituko da, hilabete bakoitzean irekiko den egun kopurua dena dela ere.
2. Haurreskolaren hileko kuota familia-unitatearen **errenta estandarizatua** oinarri hartuta kalkulatuko da. Salbuespena: 18000 € baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten familiak *(Bien zerga-oinarri orokorrak+Bien PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak)*. Hauei zuzenean 0 kuota tartea esleituko zaie.

$$\text{Errenta estandarizatua}=\frac{Bien\ zerga\text{-}oinarri\ orokorrak+Bien\ PFEZren\ aurrezpenaren\ zerga\text{-}oinarriak}{Familiaren\ baliokidetasun\text{-}koefizientea*}$$

*Familiaren baliokidetasun-koefizientea kalkulatzeko, familia-unitateari baremo honen arabera emandako puntuazioak batuko dira:

- Bi gurasoko familia-unitatea osatzen duen eskatzailea: 1,0
- Ezkontidea edo izatezko bikotekidea: 0,5
- Familia-unitatea osatzen duen seme-alaba bakoitza: 0,3
- Eskatzaileak ezkontiderik edo bikoterik ez badu edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktima baldin bada, koefizienteari 0,3 gehituko zaio.
- Koefizienteari 0,3 gehituko zaio baldin eta eskumena duen agintaritzak aitortzen badio familia-unitatea osatzen duen kideren bati mendekotasun-egoera edo % 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna.

Familia-errentaren (FE) eta errenta estandarizatuaren (EE) arteko baliokidetasunen taula (seme-alaba kopurua eta guraso bakarreko eta guraso biko familia kontuan hartuta):

Familia mota	Seme-alaba kopurua	Familia-unitatearen koefizientea	EE (hemendik aurrera)	FE (hemendik aurrera)	EE (honaino)	FE (honaino)
Guraso bakarrekoa	1	1,6	10.000	18.000	15.000	24.000
	2	1,9	10.000	19.000	15.000	28.500
	3	2,2	10.000	22.000	15.000	33.000
	4	2,5	10.000	25.000	15.000	37.500
	5	2,8	10.000	28.000	15.000	42.000
	6	3,1	10.000	31.000	15.000	46.500
Guraso bikoa	1	1,8	10.000	18.000	15.000	27.000
	2	2,1	10.000	21.000	15.000	31.500
	3	2,4	10.000	24.000	15.000	36.000
	4	2,7	10.000	27.000	15.000	40.500
	5	3,0	10.000	30.000	15.000	45.000
	6	3,3	10.000	33.000	15.000	49.500

Hauek izango dira indarrean egongo diren kuotak:

Kuota tartea	Irabaziak (zerga-oinarri orokorrak+PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak)	5 ordu arteko kuota	8 ordu arteko kuota	Egokitzapen hilabetearen kuota
0	<18.000	0€	0€	0€

Kuota tartea	Errenta estandarizatuaren mailak	5 ordu arteko kuota	8 ordu arteko kuota	Egokitzapen hilabetearen kuota
1	≤ 10.000€	91€	118€	91€
2	10.000 eta 15.000€ artekoa	140€	180€	140€
3	≥ 15.000€	160€	208€	160€

3. 18000 € baino gutxiagoko errentak dituzten familiei *(Bien zerga-oinarri orokorrak + Bien PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak)*, 0 kuota tartea aplikatuko zaie.
4. Erditze anitzeko kasuetan edo haurreskolan anai-arrebaren bat edo gehiagorekin kointzidituz gero, bigarren eta hurrengo anai-arrebek kuota doan izango lukete.
5. Kasu bakoitzean eskumena duten erakundeek jaulkitako dokumentuetan behar bezala egiaztatuta dauden egoerak besterik ez dira kontuan izango. Familiaren urteko errentari

dagokion dokumentazioa aurkezten ez bada, dagokion ordutegiaren kuotarik handiena aplikatuko da.

6. Izena emateko epea itxi eta hileko kuotak kalkulatu ondoren, esleitutako tartea eta onartutakoen behin-behineko zerrendak haurreskolan bertan eta www.haurreskolak.eus web-orrian argitaratuko dira.
7. Izena emateko aldi bakoitzari dagokion erreklamazio-epean, desadostasunak daudela iritziz gero, esleitutako kuota-tarteari buruzko erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, dagokion txantiloia aurkeztu beharko da, behar bezala beteta. Haurreskolan bertan eskuratu ahal izango da txantiloia. Izena emateko epean aurkeztu ez den dokumentazio berria ez da kontuan izango. Itxarote-zerrendan geratzen diren familiek esleitutako kuota-tartearekiko desadostasunari dagokion erreklamazioa egin nahi badute, erreklamazio-epe berean aurkeztu beharko dute erreklamazioa.
8. Erreklamazio-epea amaitzean, behin betiko tarteak eta onartutakoen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.
9. Esleitutako tartea aldaketarik gabe mantenduko da haurra haurreskolan dagoen bitartean.
10. Haurra haurreskolan hasten den lehen hilabeteari dagokion kuota esleitutako kuota-tarteko txikiena izango da, hots, 0 € zero tarterako, 91 € lehen tarterako, 140 € bigarren tarterako eta 160 € hirugarren tarterako.
11. Haurreskola batean baja eskatzen denean eta gero berriz sartzeko eskaera egiten denean, haurren izena emateko ohiko prozedurari jarraitu beharko zaio eta izena emateko orria eta eskatutako dokumentazioa entregatu beharko ditu. Bi aldi horien artean 4 hilabete igaro ez badira, kuota-tartea ez da eguneratuko eta hilabete horietako kuotei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko da.
12. Beste haurreskola batean plaza lortzeko izena berriz ematen denean, haurren izena emateko ohiko prozedurari jarraitu beharko zaio eta izena emateko orria eta eskatutako dokumentazioa entregatu beharko dute.
13. Haurreskola batean berehala hasteko plaza eskatzen duten familiek (betiere eskatutako haurreskolako plazen okupazioa % 75 baino txikiagoa bada) esleitutako kuotari dagokion erreklamazioa egin ahal izango dute, betiere haurreskolan hasi ez badira. Esleitutako kuota tartea agertzen den onarpen gutuna jasotzen duten momentutik 10 lan-eguneko epea edukiko dute erreklamazioa aurkezteko.

    Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, esleitutako kuota tartea mantenduko litzateke.

    Erreklamazioa aurkeztuz gero, erreklamazioa ebatzi ondoren hasiko da haurra haurreskolan.
14. Haurreskolan hasi ondoren jasotzen diren erreklamazioak ez dira kontuan hartuko.

3 ARTIKULUA: KUOTA TARTEAREN BAREMORAKO IRIZPIDEAK

18000 € baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten familiei 0 kuota tartea aplikatuko zaie.

1. Errenta

Errenta estandarizatua zehazteko kalkulu hau egingo da:

$$\text{Errenta estandarizatua} = \frac{Bien\ zerga\text{-}oinarri\ orokorrak + Bien\ PFEZren\ aurrezpenaren\ zerga\text{-}oinarriak}{Familiaren\ baliokidetasun\text{-}koefizientea*}$$

Familia-unitatea:

32/2015 Dekretuaren (martxoaren 17koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen dekretua aldatzekoa) 4. artikuluaren arabera, honako osagai hauek dituena hartzen da familia-unitatetzat:

a) Eskatzailea.
b) Haren ezkontidea, ezkontza-deuseztasunik, banantzerik edo dibortziorik izan ez bada, edo harekin izatezko bikote gisa bizi ohi dena, betiere eskatzailea emakumeen kontrako indarkeriaren biktima ez bada eta egoera hori 5. puntuan ezarritako moduan egiaztatu badu.
c) Haiek zaintza eta jagoletzapean dituzten eta etxebizitza berean bizi diren seme-alabak.

Aita eta ama etxebizitza berean erroldatuta ez badaude eta haien artean ezkontza-loturarik ez badago, adingabearen ama eta aita izatezko bikote gisa bizi ohi direla uste izango da, non eta ebazpen judizialaren bidez egiaztatzen ez duten elkarrekin bizi ez direla. Ebazpen horretan bertan emango da semearen edo alabaren zaintza- eta jagoletza-erregimenari buruzko erabakia.

Halaber, bikoteko bi kideei buruzko aipamenak sexu bereko pertsonek osatutako bikoteei zein sexu desberdinekoek osatutakoei buruzkoak direla ulertuko da.

Familiaren errenta-maila:

154/2012 Dekretuaren (uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa) arabera:

a) Familia-unitatea osatzen duten aitaren eta amaren edo bikoteko kideen zerga-oinarri orokorraren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aurrezpenaren zerga-oinarriaren baturak zehaztuko du errenta-maila.

Ezkontza-deuseztasunik, banantzerik edo dibortziorik izanez gero, epaileak berretsitako hitzarmen arauemailearen, behin behineko neurriak ezartzen dituen autoaren edo epai judizialaren arabera, seme-alaben zaintza eta jagoletza duen aita edo ama eskatzailearen zerga-oinarri orokorraren eta PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriaren

batura eta, hala balegokio, haren egungo ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen diru-sarrerak kontuan hartuko dira.

Era berean jokatuko da tutoretza judizialeko edo familia-harrerako kasuetan edo antzeko babes-neurriak daudenean, gurasoez bestelako pertsona fisikoren batek adingabearen jagoletzaz arduratzea dakartenean.

b) Zerga-oinarri orokorra eta PFEZren aurrezkiaren zerga-oinarria familia-unitatea osatzen duten kide guztien 2017eko zerga-ekitaldiari dagokion zergaldiari dagozkionak izango dira. Horretarako, familia-unitateko kide guztien bakarkako errenta-aitorpenen kopia aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, baterako errenta-aitorpenarena.
c) PFEZren aitorpena egin beharrik ez duten eskatzaileen kasuan, Foru Ogasunen organo kudeatzaileek zenbatuko dute haiei dagokien errenta. Horregatik, dagokien Ogasunaren egiaztagiri eguneratua aurkeztu beharko dute diru sarrerak azalduaz.
d) Familia-unitatea osatzen duten kide guztiek errenta aitorpena egin ez balute edo espainiar estatutik kanpo egonez gero, dagokion ogasunak edo jatorrizko herrialdeko administrazioak emandako ziurtagiria, 2017 urtean jaso zituen edo zituzten errenta guztiak eta PFEZari egotzi dakizkioken errendimenduak adierazten dituena.

2. Guraso bakarrekoa

Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik ez duen eskatzailea dela ziurtatzeko, guraso bakarra eta haurra agertzen diren familia-liburuaren kopia edo jagoletza bakarra egiaztatzen duen epaileak berretsitako ebazpen judizial irmoaren, hitzarmen arauemailearen edo behin behineko neurriak ezartzen dituen autoaren kopia aurkeztu beharko da.

3. Familia

Guraso biko familia-unitatea osatzen duen eskatzailea dela ziurtatzeko, familia-liburuaren edo izatezko bikotearen ziurtagiriaren fotokopia aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori kontuan hartuko da, halaber, familiaren baliokidetasun-koefizienteari dagokion ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen puntuaziorako.

Familia-unitatea osatzen duen seme edo alaba bakoitzaren existentzia ziurtatzeko, haurraren anai-arreba adingabeei dagozkien familia-liburuko orrien kopia aurkeztu beharko da.

Irizpide horretarako, anai-arrebatzat hartuko dira familia-harrerako egoeran edo adopzio aurrekoan dauden haurrak; horretarako, organo eskudunak jaulkitako egiaztagiria edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Anaia edo arreba/ahizpa, ama edo aita izatea egiaztatzeko familia-liburuaren fotokopia aurkeztuko da. Haurraren legezko tutore izatea egiaztatzeko epaiaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Atal honi dagokion puntuazioa aplikatzeko, familia-unitate berean legez eratutako tutoretzapeko egoeran edo familia-harrera iraunkorrean nahiz adopzio aurrekoan dauden adingabeak ere anai-arrebatzat hartuko dira.

Halaber, atal honi dagokion puntuazioa aplikatzeko, haurraren jagoletza gurasoetako bakar baten eskuetan badago, jagoletza duen gurasoaren legezko bikotekidea ere haurraren amatzat edo aitatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere haurraren anai-arrebatzat hartuko dira harekin bizi direnean. Egoera hori dagokion erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da.

Haurraren jagoletza duen gurasoaren bikotekidea izatea egiaztatzeko, jagoletza guraso horri ematen dion epaiaren kopia eta beste pertsonarekiko ezkontza jasotzen duen familia-liburuaren fotokopia edo horren izatezko bikotekidearen legezko izaera jasotzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dira.

4. Ezgaitasuna

Atal honi dagokion puntuazioa familia-unitateko edozein kidek % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa edo mendekotasuna izateagatik emango da.

Ezgaitasuna edo mendekotasuna egiaztatzeko dagokion lurralde historikoko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak/Sailak edo estatuaren antzeko organoak jaulkitako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan jasoko da pertsona horri legez ezagutu zaiola % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa edo mendekotasuna.

Anaia edo arreba/ahizpa, ama edo aita izatea egiaztatzeko familia-liburuaren fotokopia aurkeztuko da. Haurraren legezko tutore izatea egiaztatzeko epaiaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Atal honi dagokion puntuazioa aplikatzeko, familia-unitate berean legez eratutako tutoretzapeko egoeran edo familia-harrera iraunkorrean nahiz adopzio aurrekoan

dauden adingabeak ere anai-arrebatzat hartuko dira. Horretarako, organo eskudunak jaulkitako egiaztagiria edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Halaber, atal honi dagokion puntuazioa aplikatzeko, haurraren jagoletza gurasoetako bakar baten eskuetan badago, jagoletza duen gurasoaren legezko bikotekidea ere haurraren amatzat edo aitatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere haurraren anai-arrebatzat hartuko dira harekin bizi direnean. Egoera hori dagokion erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da.

Haurraren jagoletza duen gurasoaren bikotekidea izatea egiaztatzeko, jagoletza guraso horri ematen dion epaiaren kopia eta beste pertsonarekiko ezkontza jasotzen duen familia-liburuaren fotokopia edo horren izatezko bikotekidearen legezko izaera jasotzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dira.

5. Genero-indarkeria

Eskatzailea genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzeko, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima dela frogatzen duen ebazpen judizial irmoa edo dokumentu ofizial egokia aurkeztu beharko da. Ondoren adierazitako edozein hartuko da ebazpen judizial irmotzat edo dokumentu ofizialtzat:

- Genero-indarkeriaren biktima babesteko agindua, eskaera egiten den egunean indarrean dagoena.
- Genero-indarkeriatzat hartzen diren egintzen ondoriozko kondena-epaia, biktima babesteko neurriak hartzeko erabakia hartzen duena, eskaera egiten den egunean indarrean dagoena.
- Fiskaltzaren txostena, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima izan daitekeen zantzuak daudela adierazten duena, hura babesteko agindua ematen den artean.
-

Eibar, 2019ko martxoaren 26a

Cristina Uriarte Toledo
Haurreskolak Partzuergoko lehendakaria

Maite Larrañaga Orbea
Haurreskolak Partzuergoko idazkaria